

## GABIREL JAUREGIREN LANAK ASTRONOMIAREN ARLOAN

Atseginez irakurri ditut Gabirel Jauregi Uribarren karmeldarrak 1931 eta 1934 urteak bitartean, “Karmengo Argia” aldizkarian, Astronomiarekin lotutako gaietaz idatzi zituen lantxoak. Batetik, Gabirel aramaioarra izanik, bere euskara oso hurbila gertatzen zaidalako; bestetik, azken urteetan “Elhuyar. Zientzia eta Teknika” aldizkarian idatzi dudanaren zati bat, efemeride astronomikoei dagokiona hain zuzen, Gabirelek duela hirurogei urte egin zuenaren oso antzerako lana izan delako. Baina has gaitezen lan horien azterketarekin.

Gorago ere esan dudanez, Gabirel aramaioarra zen eta artikulu denak bizkaieraz idatzi zituen, oso estilo irakurterraz eta atseginean idatzi ere. Hala ere, idatzi zuen garaiko korronteari segituz, Gabirel garbizalea dugu eta bere idazkietan neologismo eta esangura zehazgabeko hitz nahiko dago. Honako hauek ditugu neologismoen adibide : Ludi (Lurra), izarbel eta izarbeltz (planeta), iroirenko (minutu), anei-neurkin (kilometro), bero-malla (temperatura neurtzeko graduak), eta Astronomiaren arloko gaiekin lotura zuzena ez duten beste batzuk. Ugariagoak dira beharbada esangura mugagabeko beste hitz batzuk, halanola, ilunaldi eta ilunaldi-erdi eklipse eta eklipse partzial esateko; gerri-zabal ekuatore esateko; beren eta goren perigeo eta apogeo esateko; izarti edo izartegi konstelazioren orde; izar galdu, izar igazkor, izar igikor eta izar ibilkor izar uxoen orde; bustandun izar kometentzat, e. a.

Gabirel Jauregi izanik Astronomiaz Euskaraz idazten saiatu zen lehena, lexiko urritasun arazo larriei aurre egin behar izan zien. Bigarren adibide sortak erakusten duenez, Gabirelek erabat baztertu zuen beste hizkuntzen mailegutzak lexiko sorkuntzarako eskeintzen duen bidea. Neologismo berririk ere asmatu ez zuenez, behar zituen kontzeptu guztiak izendatzeko Euskarak eskeintzen zizkion baliabideak baino ez zituen erabili. Muga estu horien artean ibili behar izateak, kasu batzutan zientziaren esparruan kontzeptuen izendapenak behar duen zehaztasuna lortzea galerazi zion. Adibidez, eklipse hitzaren orde, “illunaldi” erabiltzen duenean fenomenoaren ondorio bat hartzen du oinarri izendapena egiteko; baina ondorio hori berez da fenomeno arrunta, eta hitza argitas

unik gabeko edozein aldi (gaua bera), edo eguraldiaz ari bagara edozein goibelaldi, adierazteko erabiltzen da. Nahasteak, bada, erraz gerta litezke. "Beren" erabiltzen duenean perigeoa adierazteko, orbitaren puntu berezi horren nolabaiteko deskribapena egin nahi du. "Beren" bezala "hurbilen" ere erabil genezake, baina kasu bietan ere egoera kopuru mugagabea deskribitzen duten bi hitzekin arituko ginateke.

Terminologia kontuekin segituz, ezin utziko ditugu aipatu gabe planetentzat eta konstelazioentzat erabiltzen dituen izenak. Artizarra eta Martitzentzat izan ezik, planetentzat ohizko izenak erabiltzen ditu; baina Artizarrari "Goizeko Izarra" eta Martitzi "Illunkerako Izarra" deitzen ditu. Konstelazioen izenei dagokionean, gaur egun egiten dugunaren aurka, posible denean Euskaratu egiten ditu, batzutan neologismoak erabiliz. Hona hemen adibide batzu: Ursa Maior, "Artz Aundia"; Bootes, "Itarulea"; Auriga, "Burtzaina"; Cancer, "Karamarrua"; Cygnus, "Antzarra"; Libra, "Aztakiñ"; Virgo, "Gizkarbi"; Sagittarius, "Azkondunaga, e.a.

Lexikoaren arazoak alde batera utziz, ohar bat baino ez ortografiaz. Egun oraindik behin-betiko erabaki gabe dauden arazoak dira; beraz, normaltzat jo behar dugu Gabirelek ere arau irmori ez jarraitzea. Zenbaitetan hitz elkarketa egin ala ez egin ere erabaki gabe uzten du: "Illargi bete", "Ill bete", "Illbete" eta "Ilbete", denetara idazten du Ilargiaren faseetaz aritu behar duenean.

Baina oraindik ez dut artikuluen edukina aipatu. Goazen mamira. Idazki denak antzerako egitura dute. Lehenengo zati batean hilerako efemerideak ematen ditu ondoko atalak bereizten dituelarik:

-**"eguzkia"**. Atal honetan Eguzkiak zeruan izango duen altueraren eboluzioaren joera ematen digu urtaroaren arauera. Eguzki-ordua eta ordu ofiziala bereizten ditu eta zenbait hiritan eguzki-eguerdia zein ordutan izango den aipatzen du. Jakina, "illunaldiak" ere beti aipatzen ditu.

-**"illargia"**. Ilargiaz hitz egiterakoan faseen egunak eta "gorenaren" eta "berenaren" egunak eta distantziak ematen ditu, "illunaldiak" ahaztu gabe.

-**"itxasaldiak"**. "Beren" egunak noiz diren kontuan hartuz hilero itsasaldi "gogorak" (biziak) zein egunetan izango diren aipatzen du.

-**"izartiak"** edo "**izartegiak**". Atal honetan hil bakoitzean lau puntu kardinaletara begiratzean ikus daitezkeen izartien berri ematen du.

-**"izarbaltzak"**. Hilero ez bada ere, sarritan aipatzen ditu begi hutsez ikus daitezkeen planetak, "Goizeko Izarra" eta "Illunkerako Izarra" batez ere.

Lanen lehenengo zati honetan ematen duen informazioa izarrartean gertatzen diren fenomeno arruntenak behatu ahal izateko oinarritzko informazioa da, astronomizale batek edo ortzean gertatzen diren fenomeno nabarmenenak ezagutzeko jakin nahia duen edozeinek behar dituen datuak. Gabirel bera, zalantzarik gabe, astronomizale haundia dugu. Artikuluetak baten 1931ko irailaren 26an gertatu zen ilargi-eklipsea ikustera, Ezkarai inguruan den San Lorenzo mendira joan zela kontatzen du. Bestalde, fenomeno jakin batzuk behatzeko "prisma betaurrekinak" erabiltzen dituela ere adierazten du.

Idazkien bigarren atalean hainbat fenomenoren azalpen laburra ematen du beti oso tankera zuzenean eta irakurlearengana hurbilduz. Batzutan fenomeno astronomikoren batekin lotutako azalpenak ematen ditu, halanola, eklipseetaz, eguzki-erlojuetaz, batez-besteko eguzki-egunaz edo egutegiaz aritzen da. Beste batzutan astroren bati buruzko argibideak ematen ditu: Eguzkia, Lurra edo Artizarra kasu. Gaur egun askotan aipatzen den Belengo Izarraz ere idatzi zuen. Herri-mitologiatik hartutako kondairak azaltzeko egiten dituen ahaleginak lehen aipatu dudan irakurlearenganako hurbiltasunaren adibide dira. Argi-txakurra zer den azaltzen du eta Anbotoko Damaren interpretazio bat ere ematen du.

Bukatzeko bereziki azpimarratu behar dut Gabirel Jauregik egin zuen lanaren balorea eta garrantzia. Hizkuntz arazoei aurre eginez, aurretik batere landugabeko alorrean lan ederra egin zuelako.

*Arexabaleta, 1995eko otsailak 22*  
*Jesús Arregi*